

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	MENDEKO PERTSONEN ANIMAZIO SOZIALA ERAKUNDEETAN	Iraupena	30
		Berariazkoa	
Kodea	UF0129		
Lanbide-arloa	GIZARTE, KULTURA ETA KOMUNITATEKO ZERBITZUAK		
Lanbide-eremua	Gizarte-arreta		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Mendeko pertsoneri arreta soziosanitarioa ematea erakundeetan	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Laguntza psikosoziala eta harreman- eta komunikazio-arreta erakundeetan	Iraupena	130
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Erakundeetan dauden mendeko pertsonen eguneroko jarduerak mantentzea eta hobetzea.	Iraupena	50
	Erakundeetan dauden mendeko pertsonekin komunikatzeko teknikak		50

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1019_2 MENDEKO PERTSONENTZAKO ARRETA PSIKOSOSIALEKO ESKU-HARTZEAK EGITEA ERAKUNDE-EREMUAN gaitasun-ataleko LB1 eta LB2 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Harreman sozialeko trebetasunekin laguntzeko eta haien garatzeko esku hartzen den kolektiboetara egokitutako teknikak eta estrategiak aplikatzea.

EI1.1 Mendeko pertsonen harreman sozialen oinarritzko ezaugarriak eta beharrak deskribatzea.

EI1.2 Helburu hauek lortzeko egin behar diren esku-hartzeak eta izan behar diren irizpide eta estrategiak ezagutzea:

- Erabiltzaileek laguntza psikosoziala emateko.
- Harreman berriak sortzeko.
- Erabiltzailearen eta haren ingurunearen arteko komunikazioa hobetzeko.

EI1.3 Eguneroko egoeretara egokitutako trebetasun sozialak garatzeko eta haietan laguntzeko teknikak eta estrategiak aplikatzen laguntzea.

EI1.4 Kasu praktiko batean, erakunde batera egokitzeko aldi mendeko pertsonengan detektatutako jarrera eta portaera bereziak identifikatzea.

Edukiak

1. Mendeko pertsonentzako arreta psikosozialean parte hartzea erakunde soziosanitarioan

- Mendeko pertsonak erakundera egokitzea sustatzea:
 - Ezaugarriak.
 - Egokitzapena laguntzen edo zailtzen duten faktoreak.
 - Egokitzapen-aldian laguntza ematea.
 - Esku hartzeko estrategiak.
- Mendeko pertsonen harreman soziala sustatzea:
 - Ezaugarriak.
 - Oinarritzko trebetasun sozialak.
 - Faktoreak.
 - Zailtasunak.
 - Harreman soziala sustatzeko teknikak.
 - Laguntzeko eta harreman sozialetarako jarduerak, banakakoak eta taldekoak.
 - Bitartekoak eta baliabideak: teknologia berrien aplikazioa, ingurune baliabideak.
- Giroa erabiltzea autonomia pertsonala, komunikazioa eta harreman soziala sustatzeko faktore gisa.
 - Espazio-elementuak eta materialak: banaketa, aurkezpena.
 - Espazioen apainketa.
 - Mendeko pertsona gaixoen motibazioaren eta ikaskuntzaren ezaugarri espezifikoak.

2. Erakundeetan dauden mendeko pertsonen ezaugarri psikologikoak ezagutzea

- Oinarrizko kontzeptuak:
 - Bizi-zikloa.
 - Portaera.
 - Prozesu kognitiboak.
 - Motibazioa.
 - Emozioa, asaldurak.
- Zahartze-prozesua.
 - Gaixotasuna eta eriondoa: aldaketa biopsikosozialak.
 - Bizi-kalitateko gorabeherak.
 - Ingurune sozioafektiboaren eta adineko pertsonaren sexualitatearen bilakaera.
 - Arretako eta osoko laguntzako behar bereziak.
 - Adineko pertsonen bizi-kalitatea, laguntza eta autodeterminazioa.
 - Oinarrizko kontzeptuak.
 - Gaixotasunarekin eta eriondoarekin lotutako ezaugarriak eta beharrak.
- Mendeko pertsonen desgaitasunak:
 - Kontzeptua.
 - Saillapena eta etiologiarik ohikoenak.
 - Ezaugarriak eta beharrak.
 - Desgaitasunen bat duten pertsonen bizi-kalitatea, laguntza eta autodeterminazioa.

3. Erabiltzaileen ondoan egotea

- Erakunde batean dauden mendeko pertsonen ondoan egotearen kontzeptua.
- Esku-hartzeko eremuak, mugak eta deontologia.
- Profesionalaren funtzioak eta zeregina laguntza ematean.
- Esku-hartze ohikoenak.
- Harreman soziala sustatzeko teknikak eta jarduerak.
- Komunikatzeko oinarrizko teknika: banakakoak eta taldekoak.
- Jarduerak erabiltzailearekin egitea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Mendeko pertsonen arreta soziosanitarioa ematea erakundeetan